

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

84. zenbakia

Data 2012-05-04

103 orria

7 Udal Administrazioa

IRURAKO UDALA

Irurako Babes Zibileko Boluntario Elkartearen Araudiaren behin betiko ekarpena.

IRURAKO UDALA

Gaia: Irurako Babes zibileko boluntario elkartearen araudiaren behin betiko onarpena.

Udalaren osoko bilkurak, 2012ko otsailaren 28an, hasierako onarpena eman zion Irurako Babes zibileko boluntario elkartearen araudiari.

Oinarri horiek 30 lan eguneko epean jendaurrean jarri ziren, 2012ko martxoaren 27ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako 60 zenbakidun iragarkiaren bidez, eta ez denez aurkeztu inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatutako oinarriak behin betiko onartutzat ematen dira.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da araudiaren testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Irura, 2012ko apirilaren 30a.—Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Alkatea.

(206) (4168)

IRURAKO BABES ZIBILEKO BOLUNTARIO ELKARTEAREN ARAUDIA

1. KAPITULUA

XEDEA

1. artikulua.

Hauxe da Udal Babes Zibilaren xedea: Prebentzioa eta ekintzak koordinatzeko elkarte bat eratzea, udal baliabideetan eta herritarren elkarte eta erakunde pribatuekiko lankidetzan oinarritua, pertsonak nahiz ondasunak larrialdietan –arriku handia, hondamendia, ezbehar publikoa edo halakoak– jasan ditzaketen kalteetatik babesteko. Horretarako, hainbat ekintza egingo ditu aipatutako kalteak saihesteko, haien ondorioak apaltzeko edo konpontzeko eta, hala badagokio, haiek sorrarazi dituzten arrazoiak zuzentzeko.

2. artikulua.

Istripuak, hondamendiak edo ezbehar publikoak gertatzekotan, babes zibileko boluntarioen jokabidea garaian garaiko agintariaren menpe egongo da eta, oro har, profesionalek edo funtzionarioek osatutako zerbitzu publikoak indartzera edo haiekin elkarlanean aritzera eta, hala badagokio, haiek ordezkatzera mugatuko da.

3. artikulua.

Babes Zibileko Boluntario Elkartearen antolamendua eta funtzionamendua, herritarrek babes zibileko ekintzetan parte hartzea ahalbidetzen duen erakundea den aldetik, Araudi honetan ezarritakoari eta hau garatzen duten agindu eta ildoek men egingo die, eta orobat Larrialdien Kudeaketa arautzen duen apirilaren 3ko 1/1996 Legeari eta administrazio eskudunak ezarritako arauak.

4. artikulua.

Babes Zibileko Boluntario Elkartean sartu ahal izango dira Iruran –edo Babes Zibileko Boluntario Elkarerik ez duten inguruko beste herrietan– bizi diren pertsona fisikoak edo norbanakoak, baldin eta interesa badute Babes Zibileko Oinarrizko Zerbitzuetako berezko jardueretan zuzenean parte hartzeko.

5. artikulua.

Halaber, Interesatuaren borondatezko lanak ez du zerikusirik Larrialdien Kudeaketa arautzen duen apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 19. artikulua 3. paragrafoak aipatzen dituen herritarren ekintzekin edo indarreko legeak ezarritako beste zenbait zerbitzu baliokideekin.

II. KAPITULUA

ANTOLAMENDUA

6. artikulua.

Herritarrek, Udal Babes Zibilean denbora jakin batean borondatezko laguntza emateko, araudi honetan aipatzen den Babes Zibileko Boluntario Elkartean sartu beharko dute.

7. artikulua.

Boluntarioek ez dute lan edo administrazio-kontratuaren bidezko loturarik izango Udalarekin, zerbitzuak doan eta modu altruistan emango baitituzte, betiere ekintza humanitarioak eta gizarte-elkartasunekoak dituztela xede, herritarren auzotasun-harremanen oinarri gisa.

Nolanahi ere, Udalak egokitzat jotzen badu, helburu honen aldeko laguntza desinteresatua konpentsatu edo diruz lagundu ahal izango du.

8. artikulua.

Babes Zibileko Boluntarioen Taldean sartu ahal izango dira orientazio, aholkularitza eta laguntza teknikoko eginkizunetarako laguntzaile gisa zerbitzu honetako jardueretako batean prestakuntza eta lan-eskarmentua edo zaletasuna duten biztanleak.

Halaber, boluntario aktibo gisa sartu ahal izango dira Elkartean, aisialdi nahikoa izateaz gain, gaitasun psikofisiko eta ezaguera probak gainditu eta dagokion espezializazioko oinarrizko prestakuntza duten 18 urtetik gorako biztanleak.

9. artikulua.

Elkartean sartu nahi duen interesatuak espresuki eskatu beharko du alde aurretik eta zin eginez aitortuko du ezagutu eta onartzen dituela araudi honen eta Babes Zibilari buruzko araudiaren edukiak, eta beteko dituela agintari eskudunek edo haien ordezkariak eta egitura honetako buruzagiek bere esku uzten dituzten eginkizunak.

10. artikulua.

Babes Zibileko Boluntario Elkarteko kidea izateak soilik ematen du ahalmena hari dagozkion jarduerak egiteko arrisku handiko, hondamendiko edo ezbehar publikoko larrialdi-egoeretan. Elkarteko kideek, bertako buruzagiekin edo beste pertsona batzuekin elkar hartuta, ezin izango dute egin norberaren onurarako edota xede erlijiosoa, politikoa edo sindikala duen ekintzarik.

11. artikulua.

Elkartea Alkatearen mendean egongo da zuzenean, hura baita Babes Zibileko burua eta, eta funtzionamendu aldetik Babes Zibileko Udal Zerbitzuan kokatuko da. Dena den, Alkateak Babes Zibileko Zinegotziarengan ordezkatu ahal izango ditu Legeak ezartzen dituen funtzio eta eskumenak.

Boluntario Elkarteko Burua Alkateak izendatuko du.

Elkartek, bertako kide kopuruaren arabera, honako egitura organiko eta funtzionala izango du:

- a) Esku hartzeko Ekipoa izango da oinarrizko unitatea. Bertan hiru eta hamar boluntario artean arituko dira, eta haietako bat burua izango da.
- b) Esku hartzeko Ekintza Taldeak hiru ekipo hartuko ditu bere baitan eta taldeburu bat izango du.
- c) Atalak dagokion mailako atalburu bat izango du eta esku hartzeko hiru taldek osatuta egongo da.
- d) Ekintza Unitatean hiru atal izango dira, denak unitateburu baten azpian.

Aginte-egiturari dagokionez:

- Elkarteko Burua.
- Elkarteko Buruordea.
- Taldeetako Burua.
- Boluntarioak.

Boluntario Talde bakoitzean, haietako bakoitzak dituen zeregin espezifikokoak zehaztuko dira. Egitura hau malgua izango da eta zerbitzuaren beharretara, giza-baliabideetara eta Babes Zibileko Udal Planetan ezarritakora egokituko da.

12. artikulua.

Udal Korporazioak aurrekontuetan jasoko ditu beharrezkoak diren baliabideak Elkartek material espezifikoa izan dezan edozein larrialdiri aurre egiteko. Baliabide horiek, bereziki, honakoak izango dira: Garraioa, uniformeak, irradi-komunikazioak, eta orobat kideen aseguruak eta prestakuntza.

13. artikulua.

Elkarteko kide guztiek bularraren ezkerreko aldean eramango dute haren bereizgarria.

IV. KAPITULUA

FUNTZIOAK

14. artikulua.

Babes Zibileko Boluntario Elkartearen oinarrizko eginkizuna, larrialdien, hondamendien eta/edo ezbehar publikoen kudeaketan eta prebentzioan, etengabe eta modu

erregularizatuan, parte hartzea izango da, Larrialdietako Udal Planen eta/edo Plan Berezietan ezarritakoari jarraiki.

15. artikulua.

Boluntario Elkartearen xedea eta antolamendua kontuan hartuta, honakoak izango dira haren funtzio nagusiak:

- a) Udalaren Larrialdi Planak osatzen eta mantentzen laguntzea.
- b) Auto-babeserako Planen aholkularitza eta zabalpen lana.
- c) Zabalkunde Kanpainak diseinatzea eta egitea.
- d) Izaera prebentiboa duten ekintza-dispositiboetan laguntzea.
- e) Larrialdietan, ekintza-zerbitzuei –suhiltzaileak, osasun-zerbitzuak, udaltzainak, etab.– laguntzea, betiere Zerbitzuetako Buruen zuzendaritza eta hierarkia errespetatuz.
- f) Larrialdietako kaltetuei laguntzea: Esate baterako, ebakuazioa, ostatua, etab.

V. KAPITULUA

PRESTAKUNTZA ETA HOBEKUNTZA

16. artikulua.

Prestakuntzaren xedea da Babes Zibileko Boluntario Elkarteko kide izan nahi dutenei irakastea zerbitzu publiko honen ezaugarrien gaineko oinarrizko edukiak, eta orobat izangairik egokienak bereizten eta hartzen laguntzea ere, dagokien esku hartzeko unitatean baldintzarik hobereenetan sar daitezen.

17. artikulua.

Prestakuntza era honetan antolatuko da:

- a) Babes Zibileko boluntario-gaien orientazio ikastaroak.
 - b) Elkartean sartzeko aukeratu diren izangaien oinarrizko prestakuntzako ikastaroak.
 - c) Hartutako prestakuntza mantentzeko eta hobetzeko ikastaroak.
 - d) Kideen prestakuntza etengabe hobetzeko aldian behingo ariketa praktikoak.
- Ikastaro hauen edukia Babes Zibileko Boluntario Elkarreak bere gain hartutako jardueren araberakoa izango da.

Goian adierazitakoaz gain, Babes Zibilekin zerikusia duten Herri Administrazio edo erakunde pribatuekiko elkarlanak osatuko du prestakuntza-jarduera.

IV. KAPITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

18. artikulua.

Babes zibileko boluntarioak eskubidea du Zerbitzuko eta dagokion kategoriako ikur, ezaugarri eta baliabideak erabiltzeko parte hartzen duen ekitaldi publiko guztietan, eta nahitaezkoa izango da haiek erabiltzea esku-hartze berezietan, hondamendietan edo ezbeharretan, identifikatzeko balio dezaten.

19. artikulua.

Era berean, eskaerak, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea du.

20. artikulua.

Boluntario guztiek aseguru izatea bermatuko da, beren funtzioek dakartzaten arriskuen aurrean babesteko: Hala nola, istripuak, elbarritasuna, heriotza, osasun eta botika zerbitzuen laguntza –Gizarte Segurantzak edo beste osasun-aseguru batek babesten ez badu eta besteri eragindako kalteengatiko erantzukizuna.

Udalak zehaztuko ditu aseguru-poliza mota eta kalte-ordainen zenbatekoa.

21. artikulua.

Babes Zibileko boluntario orok honako betebeharrak ditu:

- Araudiak ezarritako eginbeharrak betetzea.
- Urtean, gutxienez, 50 ordu ematea ekintza-zerbitzuetan.

- Egokitu zaizkion erreten-txandak betetzea.
- Edozein sorospen misio ahaleginez, interesez, diziplinaz eta gizalegez betetzea.
- Biktimen laguntza eta erreskatea eta haien ebakuazioa eta sorospena.
- Esku hartzen duenean, pertsonak eta ondasunak zaintzea eta babestea.
- Esku hartzen duenean, Elkarteko buruzagiek, agintariek edo hauen ordezkariak agindutakoa betetzea.

22. artikulua.

Hondamendi edo larrialdia gertatzen denean, boluntarioak ahalik eta azkarren joan beharko du lehendik izendatua duten biltzeko tokira.

Halaber, Elkarteko buruzagiei edo agintariei eman beharko die pertsona nahiz ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkeen gertakarien berri.

23. artikulua.

Zerbitzuko ekintzetatik aparte, boluntario edo laguntzailea ezin izango da inola ere aritu Babes Zibileko kide gisa. Dena dela, ezin izango zaio ukatu bere ezagupen eta esperientziak erabiltzea herritarra den aldetik dagozkion betebeharretan.

24. artikulua.

Boluntarioa beharturik dago bere esku uzten den materiala eta baliabideak behar bezala zaintzera, eta hitz eman beharko du ordainduko dituela gaizki erabiltzeagatik edo ez zaintzeagatik haietan eragindako kalteak.

Halaber, Boluntario Elkartea uzten duenean, eman zaion materiala, ekipoa eta uniformeak itzuli beharko du.

VI. KAPITULUA

SARIAK ETA ZIGORRAK

25. artikulua.

Babes Zibileko Boluntario Elkarteko kideen jokabidea baloratuko da araudi hau garatzen duten jarraibideetan ezarritako prozeduren bidez. Merezimenduentzat bidezko goraipamenak egingo dira, eta arau-haustek zigortuko dira araudi honetan ezarritakoaren arabera.

26. artikulua.

Kideren batek zerbitzuaren betebeharruntetik gorako dedikazioa edo bizi-galtzeko edo kalteak jasateko arriskuan jartzearainoko merezimendua egin baldin bada, sari gisa, halako aitortzen publiko bat egin ahal izango zaio, Alkatearen idazkiaren bidez, edo Alkateak berak proposatu ahal izango du ematea Babes Zibileko merezimenduaren domina, 1982ko apirilaren 24ko Aginduaren bidez sortua, edo administrazio publikoek nahiz Udalak berak eman ditzakeen gisa bereko bestelako batzuk, ekintza bereziak saritzeko erabakitzen direnak.

ZIGORRAK

27. artikulua.

Araudi honetan xedatutakoaren aurkako arau-hausteengatik zigorrak jarriko dira espedienteak izapidetu ondoren, Administrazio Prozeduraren Legeak ezarritakoaren arabera.

Ez da zigorrik jarriko interesatuari entzun gabe.

Araudi honetan ezartzen diren diziplina-zehapenak jartzeko organo eskuduna Alkatea izango da.

Hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

I. Ondorengo hauek hutsegite arintzat hartu eta ohartarazpenarekin edo kidetasuna egun batetik hilabetera bitarteko denboran kenduz zigortuko dira:

- a) Berezko zereginak aurrera eramateko kidearen esku utzi diren material eta baliabideak zaintzeaz eta mantentzeaz ez arduratzea.
- b) Zerbitzuko buruzagiei ez obeditzea, non eta honek hitzezko edo ekintzazko tratua ez badakar eta egin beharreko lanean eraginik ez bada.
- c) Zerbitzura ez azaltzea bidezko arrazoirik gabe.
- d) Araudi honi egindako arau-hauste edo ez-egite arinak.

II. Ondorengo hauek hutsegite larritzat hartu eta kidetasuna hilabete batetik sei hilabetera bitarteko denboran kenduz zigortuko dira:

- a) Haren esku uzten diren ekintzak egiteari uko egitea bidezko arrazoirik gabe.
- b) Babes Zibileko baliabideak, materiala eta bereizgarriak zerbitzutik kanpo erabiltzea.
- c) Haren ardurapean uzten diren baliabideak, materiala, ondasunak eta agiriak galdu edo hondatzea bere axolagabekeriaren ondorioz.
- d) Araudi honetan ezarritakoari dagozkion gainerako arau-hauste edo ez-egite larriak.
- e) Urtebetean hiru hutsegite arin egitea.

III. Honako hauek hutsegite oso larritzat hartu eta Elkartetik kanporatzeko arrazoiak izango dira:

- a) Zerbitzuaren eskakizunak betetzeari uztea bidezko arrazoirik gabe.
- b) Jokabide txarra izatea edo jarraian egindako 3 hutsegite larriengatik zigorra jaso izana.
- c) Egindako delituagatik kondena jaso izana, non ez den zirkulazioko istripuaren ondorio.
- d) Zerbitzuaren identifikaziorako bereizgarriak behar ez bezala erabiltzea edo erakustea.
- e) Elkarteko beste kideren bati hitzez eta/edo ekintzaz erasotzea, eta bete beharreko zereginetan eragina duen agindurik ez betetzea.

- f) Ezar tzen zaizkion zehapenak bete nahi ez izatea.
- g) Araudi honetan ezarritakoari dagokion ez-betetze oso larria.
- h) Zerbitzuaren garapen egokia oztopatzen duen jokabide negatiboa eta Boluntario Elkartean ezinegona sor tzen duen etengabeko portaera, bereziki Boluntarioen adorerako eta zerbitzuarekiko grinarako kaltegarria izan daitekeena.

VII. KAPITULUA

ELKARTEAREKIKO LOTURA DEUSEZTATZEA

28. artikulua.

Honakoak izango dira Udalarekiko borondatezko lankidetzeta-harremana hausteko arrazoiak:

- Interesatuak hala eskatzea.
- Interesatua hiltzea.
- Interesatua ezgaitzat deklaratzeko.
- Aldi baterako edo behin betiko baja eskatu izana.
- Irurako edo ondoko herri bateko herritar ez izatea.

- Epai irmoaren ondorioz, kargu publikoa betetzeko inhabilitazio-zigorra jaso izana.
- Aurreko artikuluan ezarritakoari jarraiki, arau-hauste oso larriaren ondoriozko kanporatze-zigorra jaso izana.

29. artikulua.

Ondorengoak izango dira Babes Zibileko Boluntario Elkartean aldi baterako bajarako arrazoiak:

- Zigor baten ondorioz, Elkarteko jarduera eten izana.

- Zerbitzura ez azaltzea hiru hilabete baino gutxiagoan, bidezko arrazoiak baditu horretarako eta behar bezala jakinarazi badu.
- Zerbitzua etetea haurdun egoteagatik, jario berria zaindu behar izateagatik edo gaixotasunagatik.

30. artikulua.

Hauexek izango dira Elkartea behin betiko uzteko arrazoiak:

- Interesatuak hala eskatzea.
- Dagokion jarduera arrunta edo berezira hiru hilabete baino gehiagoan ez azaltzea bidezko arrazoirik gabe.

— 20. artikuluan ezarritako urteko gutxieneko zerbitzuak ez betetzea.

— Egokitu zaizkion erreten-txandak ez betetzea.

— Istripua gertatu den inguru batean zerbitzua emateari edo agindu zaion postuan egoteari uko egitea.

31. artikulua.

Elkartetik ateratzea erabaki eta interesatuari jakinarazi ondoren, ateratzen denak berehala itzuli beharko ditu Elkartean bere esku utzitako agiri, bereizgarri, jantzi, baliabide eta materialak.

Boluntarioari utzitako guztia itzultzeari uko egitekotan, Babes Zibileko Udal Zerbitzuak eskubidea izango du usteko bidegabeko jabetzearen aurka egiteko auzibidean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen: Araudi honetan ezarri ez denerako, Babes Zibileko Boluntario Elkarteak Larrialdien Kudeaketa arautzen duen apirilaren 3ko 1/1996 Legeari men egingo zaio.